

BERRIKUNTZA PUBLIKOA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ZTBP|20
PCTI|30

ARDATZ 2030

GOBERNANTZAKO, BERRIKUNTZA PUBLIKOAREN ETA GOBERNU DIGITALAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2030

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/-/zer-da-ardatz-2030/>




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Estrategia

Ardatz 2030ek gobernantzaren, berrikuntzaren eta gobernu digitalaren arloko plangintza estrategikoa lantzen du, herritarrekiko harremanetan administrazio digital, erraz, partehartzaile eta garden baterantz aurrera egiteko.

Administrazio publikoan kudeaketa eredu berriak eta gobernantza kultura berria bultzatzeko estrategia bat da, datuen erabileran aurrera egitea zerbitzuak diseinatzeko eta enpresetan eta herritarrengan berrikuntza sortzeko, horiek jarduera ekintzaileetarako erabil baititzakete. Hori guztia erakunde eta organismo publikoen arteko lankidetzazko gobernantzaren eta koordinazioaren esparruan, pertsonak Eusko Jaurlaritzaren politiken eta helburuen erdigunean kokatzeko.

Estrategia - Oinarriak



Xedea: “Administrazio zintzoa, berdinzalea, elebidun eta berritzailea eraikitzea, enplegatu publikoen eta herritarren partehartze aktiboa kontuan hartuko duena, herritarren premietan arreta jartzen duena, bere burua ebaluatzen duena eta emaitzetara bideratua, kontuak ematen dituena, irekia eta gardena, eta zerbitzu irisgarriak, kalitatezkoak, efizienteak, efikazak eta seguruak eskaintzen dituena”.


Ikusmena: “EAEko administrazio publikoa harremanetarako gunea izango da herritar erantzukideen eta gizartearen ongizatea lortzeko lan egiteaz harro dauden zerbitzu publikoko langileentzako”.

Helburu programatikoa: Administrazioa eraldatzea, balio publikoa sortuko duen eta herritarren nahiz sektore publikoaren premiei erantzungo dien erakunde publiko baterantz aurrera egiteko.

Estrategia – Arlo estrategikoak



Eremu estrategikoa	Ardatza	Ekimen lerroa
I. Gobernu zuzena, berdinzalea eta elebiduna	Kudeaketaren eta antolaketaren kultura	Kudeaketa aurreratuaren eredua.
II. Gobernu berritzailea eta etengabeko ikaskuntzan diharduena	Azpiegiturak https://www.euskadi.eus/petic-2021-2024/web01-a2ogainf/eu/	Batera zerbitzuen katalogoa sustatzea. Soluzioak eta zerbitzuak garatzea. Soluzioak eta aplikazioak modernizatzea eta arrazionalizatzea. Berrikuntza teknologikoa sustatzea EAEko sektore publikoan.
III. Herritarrak ardatz dituen gobernu digitala	Herritarrentzako arreta integrala eta kanal anitzekoa	Aldaketaren kudeaketa. Funtzionario gaituak. Erregistro elektronikoa orokorra.
	Zerbitzu digitalak.	Administrazio elektronikoaren plataforma erkidea hedatu eta garatzea. Aldaketaren kudeaketa eta profesional publikoen gaikuntza digitala. Zerbitzu elektronikoaren eskaintza eta erabilera sustatzea.
IV. Datuetan oinarritutako Gobernua, kontuak ematen dituena	Datuen eta informazioaren gobernantza.	Datuen gobernantza eredua.
V. Gobernu irekia	Herritarren partehartzea eta lankidetzeta.	Datu irekiak. Open Government, OGP-Euskadi. Elkarlan sariak.



2021ean garatutako ekimen estrategikoak

Ekimen Estrategikoak

<h3>Gardentasuna eta hobekuntza Euskadi.eus atarian argitaratutako datuen ergonomian</h3>	<p>OpenData Euskadi, 2010eko apirilaz geroztik, Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun strategiaren oinarria da > Kanpoko edozein berrerabiltzailek datu irekiak erabil ditzake produktu eratorri bat eraikitzeko, azterketa bat egiteko, etab</p> <p>OpenData Euskadi, OpenData hub bat bihurtu da, non Euskadiko Foru eta Udal Administrazioek beren datuak sindikatzen dituzten (edozein euskal administrazioaren data-setak kontsultagarriak dira OpenData Euskadin).</p>
<h3>Euskadi.eus-en argitaratzea, blockchain oinarri hartuta</h3>	<p>Proiektuaren helburua da sistema informatikoak eraikitzea, Euskadi.eus-en argitaratutako edukiei argitalpenaren datari eta osotasunari buruzko bermeak emateko.</p>
<h3>Administrazioen ordainketak eta kobrantzak blockchain oinarri hartuta– Mipago.NEXT</h3>	<p>MiPago, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimena da, gainerako euskal administrazioekin (aldundiak, udalak, etab.) eta finantza-erakundeen multzo batekin batera. Finantza-erakundeekin elkarrengarritasun-eragiketak sartzeari errazten du (ordainketa elektronikoa, bereziki Administrazioaren prozesuetan).</p> <p>Gaur egun, MiPago euskal administrazioen % 90ek baino gehiagok erabiltzen dute, eta 2020an bakarrik 200 milioi euro baino gehiago ordaindu ziren 620.000 eragiketa baino gehiagotan.</p>
<h3>Hizkuntzaren teknologiak</h3>	<p>ITZULI itzultzaile neuronalari gehituta, funtzionalitate berriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• ITZULI APPa• Chrome eta Firefox nabigatzaileentzat tresna-barra, ITZULI+• Frantsesa-euskara eta ingelesa-euskara ereduak• Trados eta wordfast Itzulpen-memoriarako konektorea• 2 proiektutan erabiltzen ari den APIren argitalpena <p>Lan egiten ari gara:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ahotsaren sintesian• Datuen transkripzioan• Hizkuntzaren baliabide digitalen banku bat sortzea, eta horri Adimen Artifizialean oinarritutako anonimizazioa gehitzea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ZTBP|20
PCTI|30

Talentua garatuz, auzolana

